

«EUSKARA» BILTZARRAREN AMAIERA-EKITALDIA*

M Karmen Garmendia Lasa

(Hizkuntz-Politikarako Idazkaria)

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.20.1988.06>

JAUN-ANDREOK, AGUR ETA ONGI-ETORRI GUZTIOI

Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet lehenik Eusko Jaurlaritzaren izenean I. Euskal Mundu Biltzarreko Euskara Biltzarra antolatu eta kudeatzeaz arduratu zareten guztioi: Antolamendu Batzordearen partaide, eta ekitaldi honetan nire mahaikide, zaretenoi; orobat bulego lanak egin dituzuenoi, eta berdin egunotako esan eginak gizarte osora zabaldu eta ezagutarazten jardun duzuen egunkari, aldizkari, irrati-telebista eta gainerako komunikabideetako ordezkarioi; berdin hain jatorri desberdineko biltzarkideok elkar uler genezan lehia bizian aritu zareten itzultzaile eta interpretarioi; bai eta ere, biltzarkideok eroso egon gintezen, etengabe saiatu zareten andereñoi eta, azkenik baina ez azken, hainbeste eta hainbeste izanik ahaztu nahi ez zintuzketedan ezkutuko beste lankide guztioi. Zuen lan isil bezain garrantzitsurik gabe Euskara Biltzarra ospatzea ezinezkoa izango zelarik berau mamitu eta burutzen hain eskubeteen lagundu duzuen guztioi bihoakizue beraz, Eusko Jaurlaritzaren izenean, esker onezko agur azalpenik bihotzekoena.

Nire poz-atsegina adierazi nahi dizuet, orobat, zuen jakituria aditzera emateaz gain bide berriak urratzeko hainbat argibide eskaini diguzuen hizlari gonbidatu eta komunikatzaile saiatuoi. Eta, nola ez, lan guzti hau jaso, ausnartu eta osatzera hona bildu zareten entzule guztioi. Aipagarria da, benetan, biltzardeitari erantzunez aste honetan zehar bertan elkarturiko guztiok azaldu duzuen lanerako jarrera eta gaitasuna.

Ez nuke adierazi gabe utzi nahi, hain zuzen, hitzaldi guztietan ikusi ahal izan duguna: jende askok eta arreta handiz eskuartu du bertan; eta, denok iritzi bereko ez izan arren, gai izan gara elkarren errespetuan eta giza legez elkarlanean jarduteko.

Poztekoa izan da, orobat, nor bere sail-eremuari atxikiz euskararen alor guztietako lagunak, etxeko nahiz atzerriko, bildu garela ikustea. Halako luze zabalerako Biltzarra antolatu dugun lehen aldia izan da hau, eta horrek berekin dituen akatsak eta mugak ere nozitu beharrean gertatu gara: halaz ere, nahiz eta ordutegia luzea izan eta eguraldi sargoriak inoiz baino gehiagotan estuasun larririk eman digun, ikusgarria izan da zuen guztion lanerako gogoia, ikasmina eta elkarren entzule izateko jarrera prestua.

Bada bereziki nabarmendu nahi dudan beste zerbait ere: gazte-jendearen

* II. Euskal Mundu-Biltzarra. 1987ko Irailak 4.

emana. Urtetan euskalgintzan ari garenon ondoan hementxe izan zarete kimu berriak, guk geuk eta gure aurrekoek bizi izan ditugun ez bezalako garaitan etorritakoak. Gauza izan behar duzue, hasitako bideari eutsiz, zeuon buruak prestakuntzarik onenaren jabe egin eta behar berriei erantzuteko gai bihurtzeko.

Eske xorta mami bat egin beharrean gara bestalde, bihotz-bihotzetik egin beharrean ere, atzerritar jakitun prestuoi eta entzule gisa Euskara Biltzarrean parte hartzera etorri zareten jakinminezko kanpotar, eta jadanik adiskide, ugarioi.

A) Euskaldunok mandatari zuhurren beharrean gara, gure txiki eta ñimiñoaren nabarmenak eskatzen duen zuhurtziaz barne-muinetan tinko iltzaturik dugun gogo xotil bezain ernagarria mundu zabaleko lau haizetara banatu eta jakinaraziko duten mandatarien beharrean:

— Herri bat garela eta izaten jarraitu nahi dugula.

— Asaba zaharren esan-eginak, mende joanetakoko beraien neke eta poz itxaropenak, besteren destainurako ez baina euskaldun guztion ohore eta bizigarritarako ondo aintzakotzat hartuak dauzkagula.

— Euskara dugula euskaldunok, zinez eta beraz, bizi iraupenezko herri gogoz hornitzen eta osatzen gaituen zimentarri nagusi eta lehena.

Hau da beraz, labur zurrean esanik, zoazten herrialdetara zoaztelarik euskaldunon berri jakin nahi luketenei azaltzeko ematen dizuegun mezu apal bezain bihozkorra.

B) Trukean ezingo dizuegu, agian, merezi duzuen adinbat eskaini. Baina esku-hutsik ere ez ezazue uste gaudenik. Zerbait bederik eskaintzeko eran gaukazue, eta eskaintzeko gogoz. Zer ote da esku-erakutsi hori?

Zuetariko askok lan garrantzitsuak eginak dituzue, nork bere jakintza sail ongi berezitan, hizkuntzaz eta hizkuntzaren inguruko hainbat zertzeladaz gizajendeak dugun ezaguera zabalduz, zoko-bazter ilunak argituz eta behialako uste oker edo osagabeak zuzenagotuz. Munduan zeharko hizkuntza handiak izan dituzue horretarako, beti ez bada ere askotxotan bederen, aztergune eta probagai: hala gertatu eta gertatzen da hori, maiz asko, hizkuntzaren deskribapenari dagokion sailen bezala hizkuntzen gizarte baldintzak aztertzerakoan eta hizkuntz irakaskuntzaren alorrean ere.

Euskarak baduelakoan gaude, bere txikitasunean ere, guztioi zer erakutsi:

— Hizkuntzalariontzat baliagarri gertatu ohi da bera, jatorriz eta egituraz aski berezi eta desberdina den adibide hurbil eta geroz eta dokumentatuago bat irispidean jartzen dizuelako.

— Soziolinguista eta hizkuntz soziologoontzat ere badu lanbidezko erakarmenik, galzorian eta herio-arriskuan dagoen hizkuntza batek zeuon alorreko zientzi azterketarako probaleku ezin aproposagoa eskaintzen baitu, osanaren giltzarriak aztertu nahi dituen mediku-ikerlariak ere gaitzak jota dagoenarengan inon baino ikasbide zuhurragoak jaso ditzakeen modu berean.

— Eta glotodidakta guztiontzat da, azkenik, aztergune ernagarri. Euskal Herriak berrikitan abiatua duen elebitasun-formulak beste leku gutxitan bezainbateko gordintasunez erakuts ditzakeelako irakaspide desberdinen goi beheak eta on gaitzak.

Zuen jakitatearen hainbat oinarri eta hipotesi egiaztatu edo hobetzeko aukera da beraz, hitz gutxitan esanik, begitarterik arraienez egiten dizuegun eskaintza.

Zatozte beraz guztiok, nahi duzuen guztian, euskararen baratze txiki bezain emankor honetara: zuen saioak, jakintzaren bultzagarri izango diren neurrian, eta emendiozko eraginez kasu honetan, euskaldunon onerako ere izango baitira.

C) Bada beste arrazoirik ere, gainera, esker onezko eskariz zuen laguntza eskatzera garamatzana. «Txikiak handia benzi leidi, asmoz eta jakitez» erakutsi ziguten zaharrek, eta ondo gogoan daukagu euskaldunok esae-ra hori. Izan ere inoiz baino beharreanago garela orain esango nuke, zigorpeko baraualdi luze baten ondoan herri-agintearen esparru ohargarri batzuk eskuratu eta non zertaz ardura erabakitzeke gai bihurtzen ari garen honetan.

Eskueran ditugun baliabideak erarik zuhur eta probetxuzkoenean erabili beharra dugu euskaldunok, begiz joak ditugun helburuak bihar edo etzi jaretsiko baditugu.

Eta horretarako, jakina, *ikasi* beharra daukagu; gogoz eta arretaz, jakitunongandik asko dugu ikasi beharra. Badakigu, jakin, etxeko gorabeherak etxean eta etxekoen artean konpondu behar ditugula nagusiki; baina eskarmentuz eta jakitatez gu baino agitz hornituago zaudetenok bide erakusle eta jakin iturri ezin prestuagoak izan zaitezke.

Jakizue beraz, jaun-andreok, gogoz eta irrikaz gaituzuela zuengandik ikasteko. Lehendik ere pauso bat baino gehiago emanak gara bide horretan barrena, dela ikasminezko gazte jendearentzat atzerriko Unibertsitateetara joateko laguntza bideak eratuz, dela atzeritar jakitunok aholku lanerako Euskal herriratuz. Jakizue Hizkuntz Politikarako Idazkaritza honek asmo sendoa duela lehendik abiatutako bide horri eutsi eta, ahal den neurrian, arnas berria emateko.

Eskari bat luzatzen dizuegu, guzti horregatik, hemen zaudeten irakasle eta jakitunoi; orain arte bezain eskuzabalik har itzazue gure ikasleak, nonahiko ikasguen ateak zabaltzen lagun iezaguzue aurrerantzean ere. Asko espero dugu zuen laguntza horretatik, eta itxaropen sendoa dugu ez gaituzuela esku-hutsik utziko.

Lot nakion, azkenik, amaiera-ekitaldi honen muinari. Biltzarrean entzundakoak zertan ditugu, alegia, Euskal herriko hizkuntz politikarako jakin iturri?

Hobe izango dugu, hasteko, hesi-mugak aipatu. Eta, horretaraz gero, bistan dago denbora-epearena dugula, bakarra ez bada ere, erabakiorrena. Goizegi da oraindik, hitzaldi eta komunikazio guztietatik banaka batzuk baizik entzun ahal izan ez ditugunez, eta irakurraldi pausatua hausnarketa bihartik aurrera —ez lehenago— egitekoa dugularik, biltzar amaiera honetan ondorio zehatz, ugari eta oinarrizkoak jaulkitzeko.

Bada ordea, guztiarekin ere, azken emaitzak zein nahi izan arren nekez alboratu ahal izango dugun zenbait ohar, asmo eta gogoeta. Horrela:

I. Ez gara munduan bakarrik. Ez gaude bakarrik. Asko dira aitzitik, mundu zabalean, gure kezka, larritasun, xede eta asmo beretsuekin bizi diren hiztun talde eta herriak. Munduko estatu eta erakunde politikoen ondoan, beraien baitan, azpian edo gainean, badago «Laugarren Mundu» bat, bere txikian eta zatituan ere bizirik jarraitu nahi duena. Herri eta hiztun talde guzti horiekiko adiskidantza, onginahia eta anaitasun gogoa biztu digu denoi, lehendik ere zeharo itzalia ez genuen arren, Biltzar honek.

II. Guztiok maila batean anai-arreba izanik ere nork geure burua zaindu beharra daukagula erakutsi digu, orobat, Euskara Biltzarrak. Batentzat egokia gerta daitekeen sendagaia bestearentzat kaltegarri edo, onenean ere, indargabea izan daitekeela. Geure aurrerabidearen arrasto nagusiak etxekook finkatu beharrak dauzkagula ikusi dugu beraz, lehendik ere sustraitu samarra genuen ustea bermatuz, Biltzarraren ondorioz.

III. Badugu, halere, besteengandik zer ikasi franko. Gu baino egoera hobean daudenengandik, edota gure ibilbide beretsua — lehentxeago edo zori hobezagoz— kurritua dutenengandik bereziki. Herri eta hiztun talde horiekiko harreman-sareak osatu eta lokarriak sendotzeko asmoa hartua dugula adierazi nahi dizuet, guzti horregatik, Eusko Jaurlaritzaren izenean.

IV. Ematen ari garen pausoak alferrikakoak edo are geure buruaren kontrakoak izango ez badira, euskalgintzaren inguruko ikerketa eta ebaluazio-lana ugaritu, sendotu eta, batez ere, sistematizatu beharra dugula ikusi dugu. Xede horri ere aurrez aurre erantzuten ahalegintzeko hitza eman nahi dizuet guztioi. Eragin etekinak ondo neurtu beharrak daukagu, irispidean ditugun baliabideak ahalik era zentzuzkoenean erabiltzeko.

V. Biltzar honek jarraipenik behar du: ez behar bada oraingo honen neurri eta taxukerakorik, horrelakoak antolatzea noizean behin baizik nekez egin baitaiteke. Bai, ordea, gai mugatu eta ongi berezitetan azterlan sakonagoak bultzatzeko. Goizegi da, oraindik, zein aztergairi lehentasuna eman behar geniokeen esateko. Badira ordea, batzuk, laster iragarriko ditugunak.

Hizkuntz Politikarako Idazkari legez hauxe esan nahi dizuet, beraz: Euskara Biltzarrean esan eta iradokitakoak oso aintzakotzat hartzen ditudala, nire ardurapean dagoen alorrean ezartzeko. Euskal Autonomi Elkartearen Agintaritza sorreratik bertatik saiatu da euskararen bizitza ziurtatzeko eremu desberdinetan neurriak hartu eta bitartekoak —gizajendezko zein diruzkoak— eralgitzen. Eusko Jaurlaritzaren ahalegin hori ez da guztion gogokoa izan; baina ezin inork ukatuko ere du herri honen historia luzean sekulan egin ez den bezalako ahalegina egin denik, hizkuntz egoera normaldu asmoz, azken urte hauetan.

Gizalan guztiek dituzte mugak; eta euskararen aldeko ahaleginek ere, bai Herri Aginteetatik bideratuek eta bai beste lekuetatik sustatutakoek, badituzte noski bereak. Baina sinesta ezazue II. Mundu Biltzarren baitan ospatu dugun Euskara Biltzar hau, zabalkunde lanerako eratu berria dugun *Euskal Hitz* ibiltaria bezala, Herri Aginteetatik eraman nahi den bidearen errainu zuzena dela. Euskalgintzaren gorpila bizkortu eta guztion indarrak bildu nahirik, hain zuzen, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren giza balia bideak neurri handian hazi dira aurtengo urtean; eta Jaurlaritzaren asmo sendoa da, orobat, arauzko zaharberritzeari zabaltasun asmoz ekinaz Euskararen Aholku Batzordeari merezi eta behar duen lekua ematea.

Esanak esan, ordea, hau ere indar guztiz aditzera eman nahi dizuet: Herri Aginteek egin dezaketena besamotz geldituko dela baldin eta aldi berean gizarteak oro har, eta euskaldun jendeak bereziki, berari dagozkion eginkizunak hezur mamitzen ez baditu. Gizarte osoaren eta gutako bakoitzaren baitan dago herri bezala iraun araziko digun hizkuntzaren etorkizuna.

Herri honek herri bezala iraun nahi badu zinez sinetsi behar du nahitanahiezkua duela euskararen bizia ziurtatzea, gure eta gizadi osoaren kultur aberastasuna izateaz gain bera baitugu euskal nortasunaren ardatz. Hizkuntzari bizirik eustearen eginkizun hau guztiona da. Herri Aginteena da, eta gizarte osoarena da. Euskarak batu egin behar gaitu, eta ez banatu, elkarlan horretan.

Aurrera daramagun bideak begiz jotako helburura eramango gaituen ala ez erabakitzea ez da arraza; eta, Mitxelena irakasleak esan berri digunez, hobe izango dugu oraingoz maila honetako balioespen zabalak gerorako uztea.

Euskal Herriak inoiz sortu duen idazlerik handienetako batek, Nikolas Ormaetxea «Orixe»k, bihotz hunkigarritzko olerki hartan esandakoa ez dezagun dena den, zernahi gorabeheratan korapilatuak gaudelarik ere, inoiz ezergatik ahaztu. Hark esana baitigu, hitz labur bezain zorrotzez, euskaldun guztiok geure barrenean senti dugun asmo hilezkorra, herri nahari eutsiz etengabe gogo berritzen gaituena:

Geroak esan beza
«Herri bat izan zan»,
edota hats emaiogun
hontan iraun dezan.

Honenbestez amaitutzat ematen dut, jaun-andreok, Euskara Biltzarra.

